




## 1- ENTZUN AURRETIK

### 1.1 Zer gertatuko da?

  Entzungo duzun audiotik hartutako esaldi batzuk dituzu segidan. Izenburua, berriz, hauxe da: *Munduarekin haserre*. Irakurri dena arretaz eta esan: Zure ustez, zer gertatuko da atal honetan?



*orain arte ez zara kexatu  
pazientzia gutxi daukazu  
gogo handirik ez daukat  
atzoko parranda  
ajeagatik nago horrela  
festa ederra  
bi egun errekuperatzeko  
buruko mina*





Hemen idatzi:


---




---

  Komentatu idatzitakoa lagun batekin. Zer gertatuko den asmatu duzuen ala ez, audioa entzun ondoren jakingo duzue.

### 1.2 Parranda eta gero...

 Festaren hurrengo egunean, Amaia eta Josu zinemara doaz. Parranda bat egin ondoren, zuk zer egiten duzu hurrengo egunean?

- Ohean geratzen naiz eta egun osoan ez naiz etxetik ateratzen.  
Zinemara joaten naiz.
- Kirola egiten dut.
- Etxeko egongelan telebista ikusten dut.
- Beste parranda bat egiten dut.
- Beste zerbaitekin egiten dut. Hauexek: \_\_\_\_\_.





  Komentatu zure aukera(k) lagun batekin.

- Zuk zer egiten duzu parranda bat egin ondoren?
- ☐ Nik, beste parranda bat egiten dut!
- Ba, nik, kirola egiten dut.

## ENTZUN BITARTEAN


### 2.1 Zer esan dute?

  Entzun Amaia eta Josuren arteko elkarrizketaren lehen zatia eta esan hurrengo esaldiok EGIA ala GEZURRA diren:

- 1.- Semaforoari asko kostatu zaio berde jartzea.
- 2.- Josuk gaur ez dauka pazientziarik.
- 3.- Atzo parranda egin zuen Josuk.
- 4.- Amaiak uste du festa ederra izan zela.
- 5.- Josuk egun bat behar du parranda batetik errekuperatzeko.
- 6.- Ur asko edan zuen Josuk parrandan.
- 7.- Amaiak errieta egin eta gero, Josuk esan du ez dela berriro kexatuko.

EGIA      GEZURRA

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>




  Entzun berriro lehen zatia eta esan, hauetatik, zein entzun duzu? Markatu.

ezta?  Ez dakit ba!  Ikusten?  Barkatu  Ondo da

  Komentatu zure aukerak lagun batekin.

### 2.2 Entzun eta hutsunea bete

  Entzun orain Amaia eta Josuren arteko elkarrizketaren bigarren zatia eta bete segidan dituzun hutsuneak aukeran dituzun hitzak erabiliz:

**ados tira goazen baina bueno aizu bai**

**AMAIA.**- Eta orain zinemara!

**JOSU.**— Bai, gogo handirik ez daukat, \_\_\_\_\_1\_\_\_\_\_...

**AMAIA.**— Zuk? Normala. Ezer esaten ez badizut, zu berriz ere ohera. Eta egun osoan ez zara etxetik atera.

**JOSU.**— Bai, \_\_\_2\_\_\_\_\_, zer film aukeratu duzu?

**AMAIA.**— Gaur zure txanda da, Josu, zuk aukeratu behar duzu.

**JOSU.**— \_\_\_\_\_3\_\_\_\_\_, ematen du gaur denak zaudetela nire kontra. Auzokoa, zu... eskerrak pisukideak ez ditudan ikusi, bestela errieta, seguru!

**AMAIA.**— Goxoa zara ba zu ere!

**JOSU.**— Amaia, polita, gaur bakea, \_\_\_4\_\_\_\_?

**AMAIA.**— Ondo da... Baina filma zuk, \_\_\_\_\_5\_\_\_\_?

**JOSU.**— Ados.

**AMAIA.**— Gainera, gaur ondo aukeratuko duzu. Seguru!


**JOSU.**— Ondo aukeratu? Zer esan nahi duzu?

**AMAIA.**— Daukazun buruko min horrekin... ez duzula tiroetakoa aukeratuko, kar, kar, kar!

**JOSU.**— Zer jatorra den gure Amaia! \_\_\_\_\_6\_\_\_\_, goazen!

**AMAIA.**- \_\_\_\_\_7\_\_\_\_!



 Komentatu lagun batekin ze hitz jarri duzun hutsune bakoitzean eta adostu bion artean zein diren aukerarik egokienak.

## ENTZUN ONDOREN

### 3.1 Zuen aurreikuspenak bete dira?

 1.1. *Zer gertatuko da?* ariketan idatzitakoa eta entzun duzuna bat datoz? Asmatu al duzu? Asmatu al du zure ikaskideak? Komentatu zuen artean.

### 3.2 Jarri arreta hizkuntzan

 Gogoratu audioan entzun dituzun pasarte hauek:

**Audioaren lehen zatian: AMAIA.**— Ikusten? Berde, goazen. Ai, zer pazientzia gutxi daukazu, gizona!

**Audioaren bigarren zatian: JOSU.**— Zer jatorra den gure Amaia!

### Harridura-perpausak/Oraciones exclamativas

Harrituta gaudenean edo zerbait azpimarratu nahi dugunean, honelako esaldiak erabiltzen ditugu:

- ZER / ZEIN itsusia (den)! DA + N = DEN
- NOLAKO aurpegia (duen)! DU + (e)N = DUEN
- ZENBAT diru (duen)! DU + (e)N = DUEN
- ZER pazientzia gutxi (daukazu)! DAUKAZU + N = DAUKAZUN
- Zer jatorra (den) gure Amaia! DA + N = DEN

 Berridatzi esaldiak, adibidean bezala:

**Adibidea:** *Pazientzia gutxi daukazu, gizona! Zer pazientzia gutxi daukazun, gizona!*

- 1.- Itsusia da soineko hori! Ez erosi. Zer itsusia \_\_\_\_\_ soineko hori! Ez erosi.
- 2.- Ederra da Aneren mutila!. Zein ederra \_\_\_\_\_ Aneren mutila!
- 3.- Urruti dago Japonia! Zer urruti \_\_\_\_\_ Japonia!
- 4.- Gabonetan bisigua garestia da. Zein garestia \_\_\_\_\_ bisigua Gabonetan!
- 5.- Bero dago hemen. Zer bero \_\_\_\_\_ hemen!
- 6.- Aurpegi txarra daukazu. Zein aurpegi txarra \_\_\_\_\_!
- 7.- Itxura txarra du Imanolek. Zer itxura txarra \_\_\_\_\_ Imanolek!
- 8.- Diru asko gastatu du Amaiak. Zenbat diru gastatu \_\_\_\_\_ Amaiak!
- 9.- Festa ederra antolatu dute Josuk eta Amaiak. Nolako festa ederra antolatu \_\_\_\_\_ Josuk eta Amaiak!

10.- Erraza da ariketa. Zer erraza \_\_\_\_\_ ariketa!

3.3. Zer esan behar dizute zu haserretzeko?

Sekuentzian Josu kexaka eta umore txarrez ikusi dugu, atzo parranda egin eta gaur buruko mina duelako. Gainera, Amaiak esan dio gaur bere txanda dela, berak aukeratu behar duela filma eta horrekin ere haserretu egin da.

Elkartu beste ikasle batekin eta idatzi zerrenda batean **ZER ESAN BEHAR DIZUTE ZU HASERRETZEKO?** galderari erantzuteko 5 esaldi.

Adibidez:

*“Ze potola zauden!” edo “Ze gaizki egin dituzun ariketak!”*

Bukatutakoan, talde handian komentatu eta ikusi zuek idatzi dituzuen esaldiak beste talde batean errepikatzen diren. Botazioa egin eta osatu gelako esaldi gaiztoen zerrenda.



**GELAKO ESALDI GAIZTOEN ZERRENDA**

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_